

hondo-hondotik

Gaizka Aranguren Urrotz

(Kazetaria)

Mozorro paktistaren urtebetetzea

(Nafarroako Foru Hobekuntzaren Lege Organikoak 20 urte)

Espainiarrek, Mendebaldeko euskaldun anitzen laguntzaz, Nafarroako hego-ekialdeko lurralde hauek konkistatu zituztenetik (1512), *ituna*, *hitzarmena* eta *paktua* izan dira konkistatzaileen eta beraien lagunak hitz gakoak. XVI. mendean egin zuten sarraski odoltsuari «Berdinen arteko hitzarmena» deritzote; 1841. ean, gure subiranotasunaren aztarnak ziren foruei egindako erasoari «Lege Pakzionatua» deitu zioten; 1982. ean, Foru Komunitatea espainiar lege eraldatuei —Konstituzioari— egokitu zekien idatzi testuari «Nafarroako Foru Hobekuntzaren Legea» deitzen diote.

Hegoaldeko nafarrak behin betiko espainiaritu daitezten etengabeko ahaleginetan dabiltzanek bertako askatasunen babeslearen mozorroa jantzi behar izan dute halabeharrez.

Gudu odoltsuetan menperatutakoari, galtzailearen oinazeari eutsi ez diezaion, itxurazko laztanak egiten zaizkio; itxurazko duintasuna errespetatzen zaiola sinetsarazten zaio, alegia.

Ipuin hori kontatu digute behin eta berriaz azken 490 urteotan. Ipuina liburutan saldu nahi izan digute, eta anitzek erosi ere egin dute. Ipuin horren arabera hezkuntza antolatu dute, eta bertatik edan dugu. Ipuin horretan oinarritutako sistema juridiko, politiko eta instituzionala eraiki dute, eta horrek agindutakoaren arabera bizitzera kondenatu gaituzte.

1982ko Nafar Foru Hobekuntzaren Lege Organikoak izenean darama bekatuaren aitortza: «*excusatio non petita accusatio manifesta*». Izan ere, edozein lege berrik hobekuntza beharko luke eragin ordenamendu juridikoan. Bizikidetzara arautzen duen legearen Hobekuntza egiten dutela diotenean, kasu! Ezer ezkutatu ari diren adierazle.

Mozorroari eutsi nahi diotenek Hobekuntzaren prekonstituzionalitatea aldarrikatzen dute; baina 1982an, gutxieneko kontsentsu politikorik gabe indarrean ezarri, foruak deitutako subiranotasun zantzu miserableak konstituzio espainiar berriaren mugei egokitzen bertzerik ez ziren saiatu.

Adibiderik gordinen diruarena da.



Nafarroako Parlamentua, 1982an.

1841eko ustezko itunaren arabera, Nafarroa Garaiak 1.800.000 erreal ordaindu behar zizkion urtero Madrilgo administrazioari (eta Nafarroa Garaiak horietako 300.000 gordetzen zituen kudeaketa lanagatik). Kopuru hori behin betikoa zen. Aldaezina! Bigarren karlistadaren amaieran, ordea, 6 milioi pezetara igo zuten. 1927an, azkenik, noizbehinkako berrikustea ezarri zuten. Edonork aldera ditzake hasierako kopuru ukiezinak gaurkoekin.

1982an Hego-Ekialdeko Nafarroari «Foru Komunitatea» izena jarri zioten. Izen horrekin lehen aipatu dugun prekonstituzionalitatea adierazi nahi izan zutelako erraten digute hura sinatu zutenek. Alta, Espainiako Estatuaren eta Autonomia Erkidego espainiarren arteko harremanak zuzentzen dituen egitura politikoaren lehendakariak (Junta Arbitral Estado-CCAA), Simón Acosta jaunak, konstituziotik at ezer ez dagoela azpimarratu berri du. Horrek, berez, ez gaitu bereziki harritzen, baina jaun hori bera

Nafarroako Gobernu Aholkularitza taldeko kidea dela jakiteak mozorroaren ahulezia agerian uzten du.

Mozorroa kentzeari beldurrik ez diotenen eta beroni eutsi nahi diotenen arteko eztabaida piztu da. Anartean, eztabaida hauek antzuak direla diotenen ahotsa baztertu, enoratu edota ezkututzen saiatzen dira.

Mozorroak mozorro, azken mendeetan ez bezala, adierazpen zaharberriak agertzen hasi dira karraketan. Xabierko Frantziskoren ikurra nork bereganatzen duen lehiak, erraterako, bor-bor dago. Ez da txorakeria edota aztertzen ari garenekin zerikusirik ez duen gaia. Jatsu-Azpilkueta sendiaren seme gazteena, saindu katoliko izateaz gain, ikur politikoa da oraino. Aurten bere heriotzaren 450 urtemuga gogoratuko dugu abenduaren 3an. Mozorroak, ikurra bereganatzeko, diruz ederki hornitutako ekitaldi bereziak iragarri dituzte. Mozorroa agerian utzi nahi dutenek ekintza askoz ere xeheagoekin diete. Tartean, erraterako,

Iruñean bertan eta Xabierrera doan errepide bazterrean, honako grafitiak agertu dira: «*San Francisco Javier, vasco de raza, navarro de nación*»; «*Frantzisko Xabier era navarro, no español*». Inork esaldi hauek garrantzirik gabekoak direla pentsatuko du. Alta, azken mendeotan azpimarratu izan ez den dikotomiaren adierazle garbiak dira: nafar ala espainiar, nafar ala frantziar. Duela 500 edo 300 urte hain argi zeuden bi nortasun horien azalpen kontrajarria galduta zegoen espainiarzaileen amesgaiztoen infernutan. Euskotar/Espainiar edota Euskotar/Frantziar dikotomia aranista izan da azken 110 urteotako ustezko abertzaletasunak garatu duena. Eta bistan dira emaitzak.

Egun, Foru Komunitateko Gobernuak, Pirinioez gairako autobidea egiteko, adibidez, Madrilgo administrazioaren diru laguntza eskatzen duenean, Espainiarrekiko *leialtasuna* azpimarratzen du bere merituen artean. Izan ere, badakite, ongi jakin ere, odoletan eraikitako beraien Espainiaren batasunari eusteko nahitazkoa zaiela Nafarroa lotuta atxikitzea. Horixe bera bertan saldu behar dutenean, ordea, Nafarroa Beherearekiko harremanak sakontzea xedean artean dagoela erraten dute (Palacios jaunak dixit).

Foru Hobekuntza, Gernikako Estatu-tua eta Frantziako Konstituzioa deitzen diete, beraz, Nafarroa Espainiar eta Frantziar lotuta dauzkaten XXI. mendeko sokei. Azken 800 urteotan garai bakoitzak eskatu duen materialarekin beregin dituzte sokak, egokien zeritzoten izena erabiliz une bakoitzean.

Bere burua espainiarizat edo frantziartzat daukaten nafarreko begirunea aintzat hartuta, eta bere burua nafar gisa ikusteari utzi zioten euskotarrekiko ezinegona adierazita, nafar askatasunen berreskurapenaren aldeko jardunean errotiko erreferentzia historiko eta politikoen iraultzeak halabeharrezkoa ematen du.

Nafar orok Foru Hobekuntza deritzoten soka honen benetako izaera antzeman dezan, Nafarroa mozorro gisa darabiltenak biluzik utzi behar ditugu. Nafarzaletasunaren soinekoa ezin baita izan gehiago Nafarroa konkistatu zutenen eta haien aldekoen jantzi.

Tortura eta sinesgarritasuna

(Aurreko orrialdetik dator)

tena, baina txosten hori *isilpekoa* da. Hau da, herri iritzia lapurtu egin zaio horren berri izateko aukera. CPTren metodoa hau da: delako estatura joan, eta egoera aztertu, ondorioak ateratzeko eta gobernuari gomendioak egiteko. Gobernuak

bere esku du jendaurrean jakinaraztea, egoki deritzon. Espainiako Estatuak, ordea, urte eta erdi darama CPTren azken txostena ezkutatu: herri iritzia bahitu egin dio txosten hori. CPTk, inkomunikazioa kritikatu ez ezik, onartu ere du, zenbait txostenetan, torturaren biktima izandako euskal herritarren deklarazioak oso

sinesgarriak direla, «bizipen pertsonalak azaltzen dituztelako, eta ez diruditelako adierazpen estereotipatuak». Hau da, ez dago salaketa egiteko modu jakinik, eta ez dirudi alde aurreko jarraibiderik dagoenik testigantzetan. Sinesgarritasun handiagoa ematen ote dio Gobernuari horrelako txostenak ezkutatzeko? Modua ematen ote dio besteri inolako oinarririk gabe interes ilunen alde aritzea leporatzeko? Zilegi ote da torturak ezkutatzeko eta torturatzailak zigorrik gabe uztea?

Inkomunikazioa tortura ezkutatzeko tresna bat da. Hori ezin eztabaidatuzkoa da. Nazioarteko gomendioak betetzeak —TATEk tortura desagertzeko proposatutako 9 oinarrietan bildutakoak, hain zuzen— sinesgarritasuna emango lieke agintarien eta politikarien adierazpeni. Hori egiten ez duten bitartean, agintari eta politikari horiek ez dute sinesgarritasunik izango.